

## «ZELO AKADEMIKOAK» ETA BESTE

Aurtengo urriak ere ekarri du bere polemika. Iaz holakorik izan zenik ez dut gogoan. Oso gogoan dut, hori bai, orain urte pare bat Luis Mitxelenak UZEIri egin eraso. Hura ere urrian izan zen (81.X.23an hitzaldia CAPen). Bazterrak astintzeko ohitura hau instituzionaldu egin beharko genuke, euskal kultura saneatzeko...

Oso kuriozosa gertatu zait polemika berri hau. Maite Echenique Elizondo hasten da: «Tesis y cosas de la Universidad» idazten du *El Diario Vasco* (83.X.06) eta *Deia* egunkarietan (83.X.9). Txillardegik erantzun egiten du, baina *El Diario Vasco*-k bakarrik publikatzen dio: «Maite Echenique-ri erantzunez» (83.X.15). Maite Echeniquek berriz: «Txillardegi y las cosas académicas» (*El Diario Vasco*, 83.X.24). Txillardegik: «Azkeneko aldiz Maite Etxenike-ri erantzunez» (*El Diario Vasco*, 83.X.26). Eta oraingoz azkenik Maitek: «Punto final» (*El Diario Vasco*, 83.X.30).

Antzeman daitekeenez, Txillardegi izan da salatua, eta salatailea Maite Echenique. Eta beti bezala, zurrumurruak berehala zabaldu dira. «Operazio» bat omen da.

Zurrumurruok euskaltzaleon afarietarako utziz, noan gertakarietara eta artikuluetara. Aurkeztu berria du bere tesia Txillardegik. Ameriketan landu zuen, Eusko Jaurlaritzaren beka batez lagundurik, eta Barcelonako Unibertsitatean aurkeztu. Hizkuntzalari diplomatua da, ba, orain. Sartu berri da Zorroagan Linguistika irakasle gisa. Maite Echenique ere hizkuntzalaria da, eta Madrileko Universidad Autónoma delakoan da irakasle.

Zein kuriozosa gertatu zaidan polemika hau aipatzen nuen hasieran. Zergatik kurioso? Ez al da kuriozosa holako salakuntzak egitea nor eta Maite Echeniquek, nori eta Txillardegiri, non eta egunkarietan? Oso kuriozosa da; ikus bestela:

- Maite Echenique bera Madrileko Unibertsitatean irakasle da eta Barcelonako Unibertsitatean bere tesia aurkeztu izana salatzen dio Txillardegiri.

- Erdaraz idatziz salatzen dio Txillardegiri tesia erdaraz egitea. Txillardegi «maximalista»ri «maximalistago» bat atera zaio Madrilen. (Txillardegik euskaraz eraman du polemika, eta Maitek espainieraz).

- Eusko Jaurlaritzaren beka baten laguntzaz Ameriketara joan izana ere gogoratzen dio Txillardegiri. Emandako laguntza

zenbatekoa izan zen eta dena daki Maitek, nola dakien guk ez badakigu ere. Maite Echenique oso ondo informatua dago behintzat, eta informazioa daukanak bakarrik ematen du. Mihin gaiztoek esan ohi duten baino «transparentzia» gehiago dago nonbait bazterretan.

Diru-kontuak zehatz eta mehatz agertu beharrean ikusi du bere burua Txillardegik. Hobe: Maite Echeniquek behartu du horretara. Jarrai dezala Maitek, denon onerako, salakuntzak eginez, ea kultur ingurune hau «kristalezko etxe» bilakatzen zaigun, «zenbait kontu» jakiteko irrikitan gaude-eta geu ere. Euskal kulturaren onerako, noski. Beti bezala.

• Idazle ona omen da Txillardegi, oso ona. Baina linguista? Besterik da ori. Hor zalantza, duda, galde-zinua. Ikusteko bide dago hori. Argitaratu eta gero ikusiko omen dugu tesiaren balioa.

Txillardegi hizkuntzalariaren balioa neurtzeke al dago, ba, oraindik? Hau ez da Txillardegiren lehen lana hizkuntzalari gisa. Orain arteko haren lanekin, ezagutu eta gero, Maite Echenique isilik geratu bada, nondik nora oraingo larriak, tesia ezagutu ere egin gabe? Kuriosoak dira «zelo akademiko» hauek...

Dena den, Maite Echeniquek Txillardegiren tesiaren balio zientifikoa, ezagutu aurretik, auzitan jarri nahi zuen. Baina benetan auzitan jarri, tesi-zuzendariaren eta tribunalaren onestasisun zientifikoa jarri ditu. Zer, euskaraz jakitea edo euskarari buruz zerbaitetan oso jakitun izatea aski garantia ote da, tesia Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztuz gero, azentuaren ikerketan ere? Tesia euskarazko azentuaz omen bait da gure kasuan, ez euskarari buruz orokorki. Badirudi Joan Mascaro ez dela gauza zér zuzentzen eta epaitzen ari den jakiteko. Eta berdin tribunaleko besteak, Patxi Altuna, Jean Harischelhar, Jose Manuel Blecua, Ramón Cerdá: *Compañeros de viaje* edo *tontos útiles* izan ote dira hauek?

Amaitzeko, eta esandakoa laburbilduz, Maite Echeniqueren erasoan bi salakuntza nagusi ikusten ditut nik: diru-arazoa eta jakintzaren kalitatea. Baieztu baino gehiago erdizka esanez, iradokiz, aditzera emanez: jokoarak oro ez bide daude argiegi, zerbait ezkutatzeko interesa bide dago, diru-iturriak aipatzen dira, aidean eta zalantzatan uzten da lanaren balioa, auzitan jartzen da prozedura eta kalitatea.

Diruen arazoa eta jakintz kalitatea, hona Maite Echeniqueren erasoaren funtsa. Oker ez banago, ez al zion hori bera salatu Luis Mitxelenak UZEIri duela urte pare bat? ■ *Joan Alzibar*